




Europako Batasunera egindako esportazioak %11 inguru igo dira aurten bigarren hiruilekoan.

EAEk Europara egiten dituen esportazioak, goranzko joeran

Gainerako herrialdeetara %16,3 gutxiago esportatu da

Erredakzioa / Bilbo

Aurten bigarren hiruilekoan EAEko esportazioak %0,7 handitu dira; egia esan Europako Batasunera egiten direnak handitu dira, gainerakoan beheranzko joera hartu baitute. Europan, Belgikara, Holandara eta Italiara eginkoek izan dute igoerarik handiena; %60, %33,3 eta %21,6ko hazkundera izan dute hurrenez hurren.

MUNDURA baino gehiago esportatzen da Europako Batasunera Euskal Autonomia Erkidegotik. Hori ondorioztatzen da atzo Euskal Estatistika Erakundeak kanpo merkataritzaren inguruko datuak eskaini eta gero.

Oro har, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako esportazioek urtearen lehen 3 hilabeteetan joerari eutsi zioten, eta apiriletik ekainera bitarte goranzko joera txiki bat izan zuten,

%0,7koa. Hala ere, Europako Batasuna (EB) eta gainerako herrialdeen artean dagoen ezberdintasuna da datuotatik adierazgarriena.

Europara eginiko esportazioetan goranzko joera nabarmena dute EAEko esportazioek —%11ko igoera—, eta munduko beste herrialdeetara eginikoek, ordea, behera egin dute —%16,3ko jaitsiera—. «EBko herrialdeek gorantz bultzatu dituzte espor-

tazioak, eta horrek berresten du ekonomiak bilakaera positiboa izan duela eta euskal esportazio sektoreari eusten diola», adierazi zuten Eustateko iturriek datuen azterketa egin ostean.

Munduko beste herrialdeetara, jaitsi

Gainerako ekonomi eremuek, ordea, emaitza negatiboa daket; horien artean, Estatu Batuetara, Mexikora eta Asiako Herrialde Industrializatu berrietara (Singapur, Hego Korea, Taiwan eta Hong Kong) egin esportazioak jaitsi dira batik bat: Asiako Herrialdeetara %39,4 gutxiago, eta %29,6 eta 14,5 Estatu Batuetara eta Mexikora.

Behi esnearen prezioa hiru zentimotan upatzea erdietsi dute laborariek Parisen

■ *Gobernukide, laborari, banatzaile eta bitartekoen lan taldeak osatuko dituzte*

Hur Gorostiaga / Baiona

BEHI ESNEAREN pinta hiru zentimotan igotzea erdietsi zuten asteartean laborariek Frantziako Laborantza Ministerioan enpresari eta banatzaileekin batera egindako bilkuran. Hala ere, urte has-tapenetik bost zentimoz goiti galdu dutela azaldu zuten laborariek, luzarora halako prezio beherapenen babese-

an ez daudela salatzen.

Michel Berhokorigoin Parisen egindako bilkuran izan zen, eta «mementuko aterabidean» adostu zirela adierazi zion atzo EGUNKARIARI. «Behi esneaz soilik mintzatu gabe, laborari, bitarteko enpresa eta banatzaileen arteko harremanak hobeki kudeatu beharraz aritu ginen. Mementuko ez da erabaki berri-rik hartu, gaia aztertzeko lau

talde osatu behar baititugu arlo bakoitzeko ordezkariekin eta gobernuordezkari-ekin», adierazi zuten.

Gisa horretan, prezioen finkapenaz, merkatuaren kudeaketaz eta estatuen eskuartzeaz eztabaida abiatuko dute, arlo ezberdinen arteko harremanak kudeatu edo kontrolatzeko irizpideak finkatuko dituen lege batera heltzeko xedearekin.

l a b u r r e a n

■ Mecanica de la Peñako zuzendaritzak Plan industrial datorren asteartean aurkeztuko die sindikatuei

DATORREN asteartean, irailaren 28an, aurkeztuko die Mecanica de la Peñako zuzendaritzak enpresa komiteko ordezkariari Plan industrial —joan den ostegunean onartua—. Odainketak etenda ditu Mecapeñak, eta egoerari itzulita emateko xedea du planak. Hiru ildo nagusi ditu, besteak beste: plantilla murrizketa bat —%30-35 ingurukoa—; kostuen murrizketa eta ekoizpenaren hazkundera aurreikusten duen proiektu bat; eta organizazio egitura berria.

■ Mugagabeko greba orokorrari ekin diote Amurrioko Iñauxa lantegiko 128 beharginek, hitzarmen kolektiboa dela eta

ELA sindikatuak jakinarazi duenez, Amurrioko Iñauxa enpresako 128 beharginak greba mugagabea daude atzodanik, herenegun asanbladan hartu erabakiari jarraiki. Autogintzarako osagarriak egiten dituen enpresako zuzendaritzak hitzarmen kolektiboan ez du aurreikusten soldaten igoerarik, eta horrez gain, maila bikoitz bat ezarri du, langile berriei soldata txiengoak ordainduz. Langileek soldata igoera bat, plantilla ez murrizteko konpromisoa eta 35 orduko lanastera hurbiltzeko eskatzen dute. Atzotik lantegia geldirik dago.

■ Daewooko langileek mobilizazioekin jarraitzen dute, eta atzo kontzentrazioa egin zuten Gasteizko Lan ordezkari-tzan

DEMESA-DAEWOOKO beharginek grebako 60. eguna bete zuten atzo, eta mobilizazioekin jarraitu zuten. Atzokoan Eusko Jaurlaritzako Gasteizko Lan ordezkari-tzan kontzentrazioa egin zuten, atzera euren lan egoera hobetu dadin eskatzeko. Administrazioak Daewoori emandako diru-laguntza bertan behera uzteko eskatuz, Ordezkari-tzako mostradorean kokatu ziren grebalariai. Ertzaintzak handik joateko eskaera egin zienean, istilurik gabe langileek mobilizazioa bukatutzat eman zuten.

■ Intxaurragak Gizarte segurantzaren «berehalako» transferentzia eskatu du

SABIN INTXAURRAGA EAEko Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuak atzo berriz ere Espainiak Jaurlaritzari «berehala» Gizarte Segurantzaren Errejimen transferitu diezaion exijitu zuen. «Kontrakoa lege organiko bat ez betetzea» litzatekeela esan zuen Intxaurragak. Bestalde, Espainiako Gobernuak UGT eta CCOO sindikatu-ekin hitzartutako gutxieneko pentsioen igoerari buruz, aurre-rapauso bat direla esan zuen, baina oraindik egiteko asko dagoela gaineratu zuen, «oraindik Lanbidearteko Gutxieneko Soldatara iristen ez diren pentsioak badaudelako».

■ Altxarigintzarako osagarriak egiten dituzten zortzi enpresa txiki Esportazio Partzuergo bat eratu dute

EAEko Industria, Merkataritza eta Turismo Sailetik bultzatutako egitura komertzial bat osatu dute altxarigintzarako osagarriak egiten dituzten zortzi enpresak. Euren neurri txikiarengatik esportazio egitura propioa izateko zailtasunak zituztenez, elkarrekin batu eta Esportazio Partzuergo bat eratu dute, Coinamobel izenarekin. Hauek dira zortzi enpresak: Clemont S.L. (Mungia), Cheva S.L. (Bedia), Eurosalqui S.A. (Oion), Flanker Mobiliario S.A. (Gasteiz), Inyectados Metalicos y Plasticos, S.A.L. (Iurreta), Leunki S.L. (Oiartzun), Luyando Mobiliario S.A. (Luyando) eta Oskadi S.L. (Zaragoza).

■ Bost urteren ostean, Erandiora ontzigitza industria itzul daiteke Muruetaren eskaintzak aurrera eginez gero

ASTILLEROS MURUETA ontzigitza enpresako akzio-dunek 1.200 milioi pezetako erosteko eskaintza egin berri dute Astilleros Reunidos del Nervion enpresako hartze-dun eta langileei. Eskaintza horrek aurrera eginez gero, orain arte ezin egin zitzakeen hainbat operazio industrial aurrera eramateko asmoa du Muruetak. Gaur egun Muruetak ontzi txikiak egiten ditu, hala nola atunetarako eta hozkailu arrastrero ontziak. Bestelakorik egiteko baimenik ez du, Urdaibaiko parke naturalean kokatuta dagoelako. Proiektuak aurrera egingo balu, ontzigitza industriaren itzuliko litzateke Erandiora, bost urtetako hutsunearen ostean.